


LEHEN URTEAK

Jose Manuel Etxeita Luzarraga Bizkaiko Mundakan jaio zen mundura 1842.eko abenduaren 13an, eta bertan hil zen 1915.ean, 73 urte zituela. Ama, M^a Josefa Luzarraga Abaroa izan zuen, Mundakako alaba, eta aita, Markos Etxeita Duñabeitia, Durangaldeko Garai herrian jaioa.

1867. urteko azaroaren 25ean Joana Abaroa Ajuriagoxeaskoarekin ezkondu zen Jose Manuel, boterez ezkondu ere. Baina, handik lau egunetara Liverpool-en birretsi zuten ezkontza-egiunea. Elkartze honetatik, Salvador izango zuten ondorengo bakarra.

Gizon bardingoa genuen Etxeita luze-laburrean, azalez beltzarana. Izakerari dagokionez, atsegina eta mazala. Harremanetan apal eta maitakorra. Buru argia eta langile f'ina. Gizon osoa, hitz baten esanda.

JOSE MANUEL ETXEITA LUZARRAGA



BIZITZAKO HARAT-HONATAK

Bere lehenengo urteak, hau da, umezaro eta gaztetxoaldia, bere jaioterrian eman zituen; baina, koxkorra zelarik (hamabi urteko edo) izan zuen itsas-bizitza gogorraren berri, untzi-mutil edo , «txo» joan zen eta.

Geroago, Biboko Nautika-Eskolara abiatu zen ikasketak egitera, nota guztiz bikainak lortuz. Jarraian, itsasoratuta, Europa eta Ameriketako hamaika paraje eder ezagutzeko aukera izan zuen, baita itsas bizitzako une garrantz eta gordinekin topo egin ere.

MUNDAKA ETA ITSASOA

Etxeitaren bizitza bezala obra literarioa itsasoari lotuta ageri da. Etxeitak txikitatik sentitu zuen bere baitan urruti-mina, baina baita geroago sorterriaren erakarmen bizia ere.

Epe honetan ardura eta kargu desberdinak izan zituen Etxeitak, harik eta hogeitau urte doi-doi zituela, kapitain-maila jadetsi zuen arte:

Ain fragata ederreko kapitan egin ninduenean, ogei urte besterik ez nituan. Eta, orrelakoak izan ba, bizitzako gorabeherak!, fragata ori ezagutu nebanean, ni bergantin bateko kamara morroia —*mozo de cámara*— nintzan. Españar merkanterik aundiena zan, eta nik, amaika bidar ames egin izan neban, ontzi orretako pillotu noiz izango ete nintzakean; eta arik zortzigarren urtean, ez bakarrik pillotu, ontziburu nagusi izan nintzan.

BILBOKO PORTUA

Jose Manuel barru-barrutik izan zen itsasgizona. Berak kontatzen digunez, oso gaztetatik untziren baten ardura eskuratzea izan zuen bere amets handia. Bilboko portua suertatu zitzaion bidaia luzeen abiapuntu eta helburu.



Hurrengo urteetan itsasoak hausten ibili zen Etxeita, «Larrinaga» itsasuntzi-etxeak lehorrean geratzeko eskaintza egin zion arte. Lanbide hau zela medio, hamasei urtez ihardun zuen Etxeitak Manilan enpresa-buru bezala.

Filipinetako hiriburuan erantzunkizun handiko karguak hartu zituen bere gain Etxeitak. Hona hemen horietariko batzuk: Kai-Batzordeko partaide, Filipinetako Adminitraritza eta Tabako-Elkarteko aholkulari, Itsas Bazkuneko zuzendari eta Merkatal-Ganbarako lehendakari. Halere, denetan, Manilako alkatetza dateke mundakarrak bereganatu zuen ardurarik garrantzitsuena.



AZKEN URTEAK

Gaztetasunak berekin dituen adore eta kemena ahuldu ahala, Euskal Herriratu, Mundaka-ratu egingo da Etxeita, oraingo honetan betiko. Etxeratze honek berebiziko abagunea eskainiko dio Etxeitari bere zaletasunak lantzeko: itsas astronomia eta musika. Baina, zaletasunoz landa, familiari eta euskarari eskainiko die marinel zaharrak bere arreta eta astirik gehiena.

Behin alargunduz gero, seme eta ilobenganako atxekimendua areagotu egin zen Etxeitarengan. Ilobei egunero ematen zizkien euskarazko eskolak, azkena bere heriotz egunean bertan.

MANILAKO ZUBI ESEKIA

Etxeita Filipinetara iritsi baino urte batzuk lehenago (1868) honela ageri zen Manilako auzune hau, bere zubi eseiki eta guzti. Ardura handiko beste hainbat karguren ondoren, hiri hartako alkate izatera heldu zen Etxeita mundakarra.

Euskararekiko maitasunak eraginda, Etxeitak bere bizitzako azken urteetan euskal hizkuntza lantzeari ekingo dio, gogotsu ekin ere, gaztaroko bizitza mugituak eskaini ez zion egokiera patxadatsua, Mundakako erretiro lasaian topatu bait zuen. Izan ere, Etxeitaren euskaltzaletasuna Euskal Herriratu aurrekoa izaki, bere produkzio literarioa 1905-1915.eko hamarkadan eman zuen argitara.



«ETXEITA» ETXEA
Munduan zehar ibili arren, Etxeitak beti piztuta izan zuen beregan sorteri-sortetxeekiko atxekimendua, eta Mundakako etxe honetara bildu zen zahartzaroan, bere euskal lanei gogoz oratuz. Hemendixe zabaldu zituen bere euskal lanak (1909-1915).



GIROA

Mundakako pausalekura hurbiltzean, Etxeitak giro aproposa aurkitzen du bere idazlanak plazaratzeko; batez ere, lantxo laburrak eta olerkiak. Jakina denez, XX. gizaldiaren hasieran izugarrizko goraldia ezagutu zuen euskal kazetaritzak, J. Urkixo, G. Muxika eta zenbait eragileri esker. Bide beretik, Lore-Jokoak eta Literatur-Sariketak polito ugalduko dira, idazleei paregabeko aukera eskainiz beren lanak argitaratu eta ezagutzera emateko.

Korronte hau, Euskal Herriak bigarren karlistada galdu ondoren bizi duen giro sozio-politikoan ulertu beharra dago; hots, euskal gizartean sortu berri den mugimendu euskaltzale berrian. Mitxelenak esaten digunez, XIX. gizaldiaren azken hamarkadan soma daitezke gure literatura nabarmenki aldatuko zuen «espíritu berri» baten lehen zantzuak.

«JAGI, JAGI»
Euskal Herrira itzultzean, Eusko Pizkundeko ideia berrieekin topo egin zuen, eta baita berak ere asmo berri haien alde parte hartu: Etxeitarena da «Jagi, jagi, euzkotarrak» ereserkiaren letra.

Etxeitaren lanak alor askotara zabaltzen dira: kazetaritza, ipuingintza, itzulpengintza, olerkaritza, nobelagintza, etab., nahiz eta bere emaitzarik mardulenak azken sail honetan eskaini zizkigun; bereziki, *Josetxo eta Jaioterri Maitia* nobelak. Ikus ditzagun, bada, arloan arlokoak; bidenabar, merezi izan zituen sari eta aipamenei leku amiñi bat eginez.

KAZETARITZA

Orixe, Lizardi, Manterola eta beste askok bezala, Etxeitak ere lur ongarrirua aurkitzen du gizaldi-hasieran loratzen diren aldizkarietan: *RIEV* (1907), *Euskal Esnalea* (1908), *Euskalerrriaren Alde* (1911), *Jaungoiko-Zale* (1912)...; baita orduko zenbait egunkaritan ere.


Gregorio Muxikak, *Euskalerrriaren Alde aldizkariaren zuzendariak*, Etxeitaren heriotzaren berri ematean, euskarak gure idazleari dion zorra aitortu ondoren, haren idazlanen nondik norakoak zehazten ditu: genero laburra, xehea; konplikazio gabeko narraketak, fikziozko edota benetako elkarrizketak, lantzean behin irakaspen moralez horniturik (*Euskal Esnalea*, 1915).

Badirudi, txera berezia ziola *Euskalerrriaren Alde* aldizkariari, eta hau zela-eta, literatur sariketetan eskuratzen zuen dirua, poltsikoratu barik, aldizkariaren beharrianetarako ematen zuen. Produkzio laburraren zatirik handiena, ordea, aldizkari horren gehigarri euskaldunean, Euskal Esnalea-n, argitaratu zuen, bigarren aldiko 3. zenbakitik aurrera behin ere hutsik egin barik parte hartuz, heriotzak mundutik eraman zuen arte.

EUSKAL-ESNALEA (1908)

EUSKALERRIAREN ALDE (1911)

Etxeitaren kazetari-idazlanek honelako aldizkarien orrialdeetan izan zuten beren tokia. Horrela, inguruko euskaltzaleen giroan, aurkitu zuen idazleak zegokion lekua.



ETXEITA IPUINLARI

Etxeitaren ipuingintza arestian aipaturiko aldizkarietara loturik dago neurri handi baten. Lanen bat aipatzerakotan, *Euskal Eснаlea*-k 1909. Urtean antolatu zuen ipuin-lehiaketan bigarren saria lortu zuena aipa daiteke: *Maria Jesus eta iru artzaiak*. Ipuin hau hurrengo urtean *Esku-egundiya* 1910 argitalpenean kaleratu zen, bertan beste idazle ezagun askoren lanak agertzen zirelarik (A. Kanpion, J. Urkixo, T. Aranzadi...).

IPUINLARIA

«Mari Jesus eta iru artzaiak» hau bezalakoekin ipuiniari-lana ere egin zuen Etxeitak. Kasu honetan, bigarren sari bat jaso zuen *Euskal Eснаlea*-ren lehiaketan (1909).



ETXEITA ITZULTZAILE

Bi dira arlo honetan bereziki aipa daitezkeen lanak. Lanok, *Euskalerraren Alde* aldizkariak Truebaren ipuinak euskaratzeko eratu zuen itzulpen-sariketan lehenengo bi sariak merezi izan zituzten: «Ziñistuten dot Jaungoikoa'gan» (*Creo en Dios*), eta «Urikoa» (*El Expósito*). Itzulpen hauek urtebetegarrenean argitaratu ziren Donostian *Ziñistuten dot Jaungoikoa'gan, Urikoa, Jon-Uso. Creo en Dios, El Expósito ta Juan Palomo* izenaz *Trueba*'k erderaz egindako ipui oek izenburupean, egilea ordurako mundutik aldegin zela. G. Muxikak dioskunez, inprenta-probak Etxeitak berak zuzendu zituen hil aurretxoan. Badu, halere, Etxeitak itzulpen gehiago aldizkarietan zehar barreiatu; adibidez, «Zorijona», hau ere Truebaren obratik itzulia.



ITZULTZAILEA

Etxeitari ez zitzaion sormenik falta izan, eta literatur sorkari politik kaleratu zituen; baina inoren lanak euskaratzen era saiatu zen, hemen ikus dezakegunez. Literatur gizonen artean Trueba bizkaitar erdal idazlea izan zuen horretarako maiteana.

ETXEITA OLERKARI

Etxeitak, han-hor-hemenka argitaraturiko olerkiak eta bertsoak bildu, bere bi nobeletan argitara emanikoak gehitu, eta *Au, ori ta bestea* bildumatxoa atondu zuen 1913. urtean. 52 olerki dira guztira, eta itsasoa, euskara eta bizitzako gorabeherak ukitzen ditu batipat berauetan. Gai samur eta minberatsuen ondoan, zirikatzaile eta alaiak ere badarabiltza, inoiz edo behin elkarrizketa modura emanaz.

Izan ere, sarri ere sarri baliatzen du bere nobeletan bertsoekiko duen sen berezia, kasurik gehienetan idatz-iaiotasun nabaria erakutsiz.

Eusebio Erkiaga bizkaitar idazle bikainak adierazten digunez, Etxeitaren bertsoak kantatuak izan dira Mundakan, nahiz eta gaurko gazteek ez ezagutu. Adibide gisa, Etxeitak, Manilan zegoela, Santa Katalinaren ermita jausi zenean paratutakoak aipa ditzakegu.

OLERKARIA

Han-hemenka sakabanatuz erein zituen Etxeitak bere olerkiak, eta, gero, «Au, ori ta bestia» izenpean, bilduma batean bildu zituen lan haiek (1913).

Kopla eta bertsoak agertu ez-eze, hauekiko aipamenak ere tartekatuko ditu Etxeitak bere kontakizunetan, orduko euskal gizartearen zaletasun hau azpimarratuz:

Kopla oneek lenengo kalean, urrengo josleak egozan etxeetan, ta gero neskameak, langillak eta edonork, edozein lekutan kantetan ebazan. Etzan jakin jakin nor zen koplaria (*Josetxo*).

Sta. KATALINA

Hemen ikusten dugun Sta. Katalinaren Mundakako ermita berriturik dago; baina Jose Manuel Manilan zegoela behera etorri zen, eta idazleak, gero herriak bere egindako bertsoekin gogoratu zuen sorterriko gertakari hura.



Esanda dugunez, Etxeita bera izan zatekeen behin baino gehiagotan holako kopla askoren paratzailea.

Arlo honetan ere izan zen saritua, *Euskalerrriaren Alde*-k Zarautzeko Euskal Jaien barruan eratu zuen olerki-sariketan, «Itsasoan» izeneko olerki-sortaz bigarren saria lortuz. Hona hemen, erakusgarri gisa, sortako hamar bertsoetatik azkena:

Lurrunak gorutz, euriak berutz,
osiña beti lanean,
Eta onela jarraituten dau,
Betirauna dan bidean.
Ludi geyena besarteturik,
Beroan eta otzean,
Ikusten dogu miragarria,
miragarrien artean.

TX. AGIRRE

Etxeitaren urte beretsuetan (lehentxoago hasita: 1898, 1901, 1907) Txomin Agirre zen euskal kontalarien maisua, eta izan zuen, hortaz, mundakarrak literatur abildade berriak non ikas.



ETXEITA NOBELAGILE

Orain arte aipatutako lanak gutxietsi gabe, Etxeitak euskal literaturan duen izena bere bi nobelei zor die inolako ezbairik gabe. Badirudi, orduko euskaltzale batzuren geldotasunak eta euskal narratibaren egoera ahulak bultzatu zutela nobelagintza lantzerako, berak bere burua gaitasun urriko ikusten zuen arren: «Utsune asko topako dozuz, irakurlea, irakurgai onetan» (*Josetxo*, Itzaurrea); «Olako irakurgetiak nik baiño milla bider obeto egingo leukezan euskaldunak dagoz» (*Jaioterri Maitia*, Berbaurrea).

JOSETXO (1909)

JAIOTERRI MAITIA (1910)

Etxeitaren lanetarik, *Josetxo*-k du sonarik zabalena gure artean, eta *Jaioterri maitia*-rekin batera osotzen du autorearen elaberri-bikotea. Idazlearen izen ona batez ere bi obra nagusi hauetatik jaio zen.



Hasikinetan, hasi-masietan dagoen eginkizun baten murgiltzen da Etxeita, beti bezain gartsu eta gogotsu. Eta, egia esan, ekaitz handietan untzia gobernatzeko lemaz erakutsi zuen kemen bera agertuko du lumaz, hitzezko uhinei aurre eginez.

Nobelagintzari lotzen bagatzaizkio, Etxeitak bere lehenengo nobela argitaratzen duenean (1909), soil-soilik sei elaberri antzeko daude argitara emanda euskaraz: *Peru Abarka* (1802-1881), *Atheka gaitzeko oihartzunak* (1870), *Piarres Adame* (1889), *Behin da betiko* (1893), *Auñemendiko Lorea* (1898) eta *Kresala* (1906). Baina, nolabaiteko luzera, originaltasun eta nobelatasuna eskatuz gero, aditu gehienen iritziz, azken biak dirateke bakarrik kontutan hartzekoak. Helduleku eta eusgarri gutxi, beraz, Etxeitak bere langintza honetarako aurkitzen dituenak.

Hiru lan nagusi ditu Etxeitak alor honetan, baina bik bakarrik izan dute argia ikusteko zoria:

1) *Josetxo*, F. Elosu, Durango, 1909, 368 orr. Liburu mardul honetan, Josetxo izeneko umezurtzaren bizitza kontatzen zaigu, inutseinetan hasi eta hogeitamar urte bete arteko gorabeherak harilduz

Ohitura —eta abentura— nobela honetan, Etxeita eta protagonistaren bizipenen artean nolabaiteko paralelotasuna soma daiteke, zenbait pasartetan kutsu biografikoa hartzen duelarik.

2) *Jaioterri Maitia*, F. Elosu, Durango, 1910, 255 orr. Bigarren liburuan, *Josetxo*-ren anaia menditarra berau, protagonistak (artzainak) Ardibaso izeneko Arkadia antzeko batean kokatzen ditu egileak. Ekintza, halere, Mexiko eta Euskal Herriaren artean balantzatuko da. Lehendabiziko nobelan gertatzen denaren arabera, bigarren honetan ere atzerria, aberasteko bidea besterik ez da izango, jaioterrira itzulirik, bizimodu eroso eta zoriontsu bat jadetsi ahal izateko.



3) *Oroitzapenak* (Argitaragabea). «Memorias» delako eskuizkribuan, Etxeitak bere bizitzako zenbait gertaera, pasadizu eta gorabehera batzen ditu; nola itsas eta atzerriko bizitzari dagozkionak, hala bere harreman pertsonal eta familiarekikoak.

Argitara eman izan diren atal urrietan interesgarritasuna nabari daitekeen arren, zailtasunak egon dira, antza, idazki hau plazaratzeko.



ETXEITAREN NOBELAGINTZA

Etxeitaren asmoa, bere garaiko zenbait joera bildu eta bide eklektiko bat hartzea dela dirudi. Abentura-, pertsonai- eta ohitura-nobelaren arteko zerbait egin nahian ihardun zuen; lanak, sarritan, moralismoz zipristinduz. Eraginei gagozkiela, Pereda, Mogel eta Tx. Agirre dirateke aipagarrienak, Truebarena ahaztu gabe.

ERBESTEAREN PREMIA

Etxeitaren bizitzan bezalatsu elaberrietan ere, norberaren erosotasun ekonomikoari oinarriak jartzeko bide bezala ikusi izan da atzerria. Koloniak metropoliaren beharrei erantzun behar zien: hona dakargun mahai eder hau, adibidez, Filipinetako enbor bakar batekin egina da, ata Gipuzkoako Ordizian dago, bertako Kultur Etxean (Barrena Jauregia). Etxeitak era ongi ezagutu zuen hango izadi emankorra.

AINTZINDARITASUNA


Etxeparek honela idatzi zion Bernard Leheteri, 1545ean: «Igorren derauritzut heuscarazco copla batzu ene ignoranciaren araura eguinac» (1545); eta Leizarragak Albretoko Joanari (1571): «eta ikussiric ecen halacoequin (beste hizkuntzetako itzuitzaileekin) comparatzera ez-deus baino ezdeusago nintzela». Honelako pentsamenduen durundia dantzugu Etxeitaren lehenengo liburuaren hitzaurrean ere. Jakin bazekien marinel zaharrak zelako oztopoak aurkituko zituen zapaltzen ari zen bide malkartsuan. Bide malkarra, zinez, haginak berdindutako gizaseme batentzat. Horrexegatik agertzen zaigu

Etxeita apal eta borondatetsu:

nator guztiz indarga, egingo dodana baiño egin gura neukeana geiago dala; aldana egiñaz egituten da egipidea (*Jose txo*, Itzaurrea).

Hala eta guztiz ere, ez zaio umorerik falta, aurreratxoago, honako hau esaten duenean: «jarraitu beti aurrera, esan oi dan lez, esanaz: Lenengoan parkatu, urrengoan urkatu».

11




ARTEKALE, MOLDIZTEGIEN KALEA

Ezaguna denez, Eusko Pizkundearen barnean Durangoko moldiztegiek zeregin nabaria bete zuten euskal edizioetan: Astarloa, Mogel, Agirre, Urruzono eta abar luze batek Durangon eman zituen argitara bere lanak. Etxeitak era bai bere hiru liburuak.

HIZKUNTZ ZALANTZAK

Mende-hasierako euskal idazleek (aurreko belaunaldietan bezalaxe) hamaika eta bost zalantza izaten zuten, euskaraz nola idatzi erabakitzeko (ez da ahantzi behar Euskaltzaindia 1919koa dela), norberaren izenaren idazkeratik hasita. Hona Etxeitak Elosu bere argitaratzaileari bidalitako gutun bat (1908), hain zuzen zalantza horien berri ematen zion bertan idazleak. (Arantzazuko artxibategikoa).



Aintzindaritasunak, itaurrean ibiltzeak damaio Etxeitari segurtasunik eza. Izan ere, literatur-hizkuntza ez-eze, ortografia bera ere arautu barik bait dago mundakarraren lanak argitaratzen diren garaian. Izan zituzkeen duda-muden erakusgarri polit bat, Aita Villasantek ematen digu, Arantzazun gordetzen den eskutitz bati jarraituz. Eskutitza, Etxeitak inpresoreari bidalia da eta bertan *Josetxo* argitaratu aurretik bere izenpena aldatzeko eskatzen dio; hau da, «Jose Manuel Etxeita-rrak» kendu, eta sabindar erara, «Etxeita-tar Jose Manuel» jartzeko, Isaac López de Mendizabalek bere *Manual de Conversación Castellano-Euskera* liburuan esandakoa aintzakotzat hartuz.

Bideren bat aukeratu behar eta, Etxeitak azkenean bere bideari jarraituko dio, lehenengo liburuan Añibarro arratiarraren ildotik abiatuz eta bigarrean Mogel markinarrarenetik.

GERNIKAKO ARBOLA

Etxeitak, izan zuen ardurarik euskal nortasun politikoaz, eta berorri zegozkion oroimen-irudiak maite izan zituen, horien artean Gernikako Arbola eta Juntetxea.



ABERTZALETASUNA

Bere lehen liburuaren hitzaurrean, beren beregi aipatzen ditu Etxeitak abertzaletasunaren garapen eta zabalkundearekin zerikusi handia zuten idazle eta politikari batzuren izenak: Astarloa, Kanpion, Arana... Ez da harritzekoa, beraz, bere garaiko semea izanik, Etxeitaren obrak abertzaletasunez opilduak egotea.

Etxeitarentzat Euskal Herriaren sinbolorik esanguratsuena Gernikako Arbola da («Gernikako Aritxa»/«Aritx-tantaia»). Arbola honen azpian euskal ohitura, lege eta nortasuna aterpe seguruan daudela, haren gerizpe gozora noiz itzuliko biziko dira atzerrian aurkitzen diren euskaldunak ere. Foruak galdu aurreko gizartea du gogoan Etxeitak, ikuskera horretan aberri-mina eta lehen-mina uztartzen dituela.

ERLIJIOA

JELpean umotutako belaunaldia dugu Etxeitarena. Hortaz, irmo ere irmo eutsiko dio «euskaldun-fededun» batasun ezagunari, sarritan moralkeria eta didaktismoan jausiz: «Zeinbat bider gogoratu ete jaken Jaungoikuak zeatu ebal bere gizabide okerragaitik!» (*Jaioterri Maitia*).

13

EUSKALTZALETASUNA

S. Aranak gidatzen duen proiektu politikoan arreta berezia jarriko da euskararen lanketa eta zabalpenean, egitasmo orokor honetan, hizkuntza habe garrantzientariko bat izaki. Hau dela-eta, hizkuntzak sekulako indarra bereganatuko du; jarrera desberdinen arabera, nortasunaren eragile, fedearen babesle, edota ikur-politiko bilakatu.

Euskereak alde egitezkero, Jaungoikua lagun euskaldunak eta euskalerrija: orduban guztijok isango gintzakez erdaldunak, geure jatorri-jaren ezaugarri senduena ta mailiena galduta.

HIZKUNTZA

Etxeitarentzat, oinarrizko nortasun-agiria zen herri baten hizkuntza, eta behin baino gehiagotan azpimarratu zuen komentzimendu hori.

14

Etxeitarentzat ere, ezinbestekoa zen euskararen iraupena:

Euskereak alde egin ezker (...): orduban guztijok izango gintzakez erdaldunak, geure jatorrijaren ezaugarri senduena eta maitiena galduta (*Jaioterri Maitia*, Berbaurrea).

Horrexegatik idazten du, literato ez den arren, eta arrazoi berberengatik zetorkigun bere lehenengo liburuan: «euskeraren alde bere alegiña egitera». Euskara helburu duela idazten du, bada, Etxeitak, euskal literaturan idazle ugarik egin izan duen antzera.



AUTOBLOGRAFISMOA

Etxeitaren bizitzako elementu bik erabateko eragina izan zuten haren obra literarioan: batetik, itsasoak; eta bestetik, bere harreman afektiboetan gurasoengan aurkitu omen zuen aurkakotasunak. *Jose txo* eta *Jaioterri Maitia*-n eurrez agertzen zaizkigu gurasoen seme-alabekiko jarrera honen oihartzunak, kasurik gehienetan, aurkakotasun honen zergatia egoera ekonomikoan datzalarik.

Itsas-bizipenek ere badute beren islada Etxeitaren obran, leku, ekintza eta protagonistek bizi dituzten gorabeherak erakusten dutenez.

MUNDAKAN

Behin-behineko erbestealdi luzeak bizi izandako askoren antzera, Etxeitak ere bere buruaren erroak sorterrian sentitu zituen, Euskal Herrian eta Mundakan. Hemen eraiki zuen bere «Etxeita» etxea eta azkenik hementxe aurkitu zuen haurtzaroko herria, artean geroko aldakuntzarik gabea.

ETXEITAREN EUSKARA

Batek baino gehiagok, Etxeitak erabiltzen duen euskara, ulergarri eta ikasten ari direnentzat gomendagarria dela esan arren, darabilen euskara kontu apur batez begiratu beharra legoke, batez ere, joskerari dagokionean.

Hondarrean, Etxeitak hizkuntza jatorra darabil; baina, badirudi, itsasoan eta atzerrian luzaro egona moteldu eta kolorebakotu egin ziola umetan edoskitako hizkuntza. Apur bat mugatua dugu esakune, lokuzio, hiztegi eta adierazkortasun aldetik. Baina, baditu, halere, esamolde jator ugari; baita, txitean-pitean, herrian ondo sustraiturik dauden erabilkera jatorrak ere.

Joskera du, baina, alderdirik ahulena; batez ere, galdegaiaren erabilkera. Bere garaiko estilo-ezaugarritzat, hau da, zenbait idazlek aintzakotzat hartzen zuen ikutu kultu eta dotore gisa har daitekeen arren, Txomin Agirreren lanak ikusi besterik ez dago, gaitzak ez zituela den-denak jo frogatu ahal izateko.

Hiztegian, zahar kutsuko berbak eta garbizaletasunak eragindako hitzak eta moldeak elkarren ondoan agertzen dira, lanei berezitasun egoki bat erantsiz.

15



EZAGUTU BEHARREKO IDAZLEA

Gure literatur esparru meharrean ez dirateke alde batera uztekoak Etxeita bezalako idazle xume eta Jatorrak. Izan ere, nekez ezagutu ahal izango dugu gure prosagintzaren funtsa aintzindariaren jokera eta espresabideen berri izan gabe. Azken batean, idazle guztiek eman ohi diote beren bultzadatxoa hizkuntza literarioari, ekarriaren eragina eta garrantzia idazletik idazlera erabat desberdina den arren.

Bukatzeko, hona hemen Mundakako bidegile honi buruz, Mitxelenak euskal literaturaren nondik norakoak aztertzean zioskuna: «la ahazturik dagoen aintzindari bat, ahaztuegi beharbada, Jose Manuel Etxeita bizkaitarra dugu».



GREGORIO MUXIKA

Garaiko beste hainbaten gisara, harreman zuzenak izan zituen Etxeitak Gregorio Muxikarekin, hau da, XX. mendearen lehenengo hiru hamarkadetako euskalgintzan halako toki handia izan zuen *Euskal Esnalea* Elkartearen idazkariarekin. Sustatzaile ata idazle honen eskuetatik pasa zen, argitara aurretik, Jose Manuelen kazetari-lan anitz. Muxikari zor diogu, gainera, Etxeitaren heriotzondoko oroitagurra.